

# «Egia egi, ogia ogi, ardaua ardau, bi eta bi lau» edo Biktimaren Estatutua arautzen duen 4/2015 Legeari hamar kritika

Ixusko Ordeñana Gezuraga  
EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea (UPV/EHU)

Ondorengo lerroetan 2015. urtean onartu zen 4/2015 Legearen azterketa kritikiko bat egiten da. Espainiako Zuzenbidean Biktimaren Estatutua arautzen duen lege berria komunikabide gehienek, politikari askok eta zenbait adituk ozen goraiatu duten arren, hainbat akats ditu. Oker horiek guztiak 10 kritika nagusitan bildu eta azaldu ditugu, *lege ferenda* konponbideak ere emanaz.

GAKO-HITZAK: Biktimaren Estatutua · 4/2015 Legea · Biktima · Delitugilea.

## Let us call a spade a spade or ten criticisms of 4/2015 law about statute of victim

In the following lines a critical reading of 4/2015 law, which was adopted in 2015, is done. While most of media, many politicians and some experts have praised the new law regulating the Statute of Victim in Spanish law, it has plenty of flaws. All these defects are grouped and explained in 10 major criticisms, presenting likewise *lege ferenda* their solutions.

KEY WORDS: Statute of victim · 4/2015 law · Victim · Offender.

*Jasotze data:* 2016-10-22    *Onartze data:* 2016-12-13

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Espainiako Parlamentuak, 2015eko apirilean, Biktimaren Estatutua<sup>2</sup> arautzen duen apirilaren 27ko 4/2015 Legea onartu eta 6 hilabete geroago sartu zen indarrean. Kontuak eginda, beraz, indarrean urtebete eskas daraman lege baten aurrean gaude. Ez gaude edonolako arau baten aurrean; komunikabide gehienek, politikari askok eta zenbait adituk ozen goraipatu duten lege baten aurrean baino. Eta, zalantza gabe, izan baditu alderdi edo elementu anitz positibo —nagusia, bere existentzia bera—, hala ere, kritikarako beta ere ez da falta. Beste hitz batzuetan, eta lanaren izenburuan jasotzen dugun euskal esaera zaharraren ildotik, «tximist handi eta euri gutxi» edo «urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau». Baieztapen edo hipotesi hau frogatzeko, ikerketa honen jomuga nagusia, aipatutako legearen testuan aurki ditzakegun hutsune edo akatsak agerian uztea da, inoiz ere haren abantailak, elementu positiboak edo indarrak ixildu gabe. Ekimen hau, noski, legea hobetzeko asmoarekin egiten dugu, etorkizunean egin daitezkeen aldaketetan legelariak gure proposamenak kontuan hartuko dituen esperantzarekin. Azterketa hau antolatzeko, BEren alderdi edo elementu desberdinak ukitzen dituen hamar kritikatan oinarrituko gara.

## 2. Lehenengo kritika: txarto bazen ere, biktima aurretik ere babesten zen Espainiako ordenamendu juridikoan. Aurreko egoerari begirada azkarra

Joan den urtera arte, espainiar ordenamendu juridikoan, biktimaren inguruko legedia oso sakabanatuta zegoen. Hainbat legetan arautua (Prozedura Kriminaleko Legea<sup>3</sup>; Kausa Kriminaletan Lekukoak eta Adituak Babesteko 19/1994 Lege Organikoan, abenduaren 23koa; Zigor Kodean<sup>4</sup>; Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimak Laguntzeko eta Sorosteko 35/1995 Legea, abenduaren 11koa<sup>5</sup>; Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Legea, urtarrilaren 15koa<sup>6</sup>; Genero-indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurrien 1/2004 Lege Organikoan, abenduaren 29koa<sup>7</sup>; Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko 29/2011 Legea, irailaren 22koa<sup>8</sup>...), biktima berezien inguruko legedia ugaria bazen ere, ez zegoen Espainian biktimaren definizio bateratu eta bakar bat. Are gehiago, biktima terminoa bera ere oso gutxi erabiltzen zen, beste batzuk (iraindua, kaltetua, laidotua) gailenduz<sup>9</sup>. Horri, aipatutako lege bereziek jasotzen

---

1. Lan hau Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak babestutako DER2015-64506-C2-2-R ikerketa-proiektuaren («La tutela procesal de las víctimas de la violencia de género: el Estatuto de la víctima del delito») eta europar integrazio politiko eta ekonomikoa ikastera bideratutako Eusko Jaurilaritzaren GIC IT675-13 ikerketa-proiektuaren eta PIUren magalean burutu da. Bi horien zuzendariak, hurrenez hurren, Andrea Planchadel eta Juan Ignacio Ugartemendia dira.

2. Aurrerantzean, BE.

3. Aurrerantzean, PKL.

4. Aurrerantzean, ZK.

5. Aurrerantzean, IDSADBSL.

6. Aurrerantzean, ABJL.

7. Aurrerantzean, GIBONL.

8. Aurrerantzean, TBAOBL.

9. Guztien erabilera eta desberdintasuna azaltzen dugu: Ordeñana, 2014: 35-36.

zituzten biktima zehatz edo berezien definizioak gehitzen badizkiogu<sup>10</sup>, emaitza nahiko traketsa da: biktimen arteko desberdintasuna, eta horietariko batzuentzat *ad hoc* arauketa berezi bat dagoen bitartean, besteentzat lege-hutsunea.

Testuinguru horretan, aipatutako biktimen arteko desberdintasuna ahaztu gabe, biktimei zigor-prozesuan era aktiboagoan (delitu publiko eta semipublikoetan akusatzaile partikular moduan)<sup>11</sup> edo pasiboagoan (lekuko huts gisa) parte hartzeko aukera aintzatesten zitzairen. Azken kasu horretan, biktimak edozein hirugarreni ematen zaion tratu bera zuen, betebeharrugarirekin eta eskubide gutxiarekin, akusatzailearekiko desoreka prozesal argian<sup>12</sup>.

Biktimaren beste eskubide batzuei erreparatzen badiegu, egia da pairatutako delituaren edo/eta horren ondoriozko zigor-prozesuaren inguruko zenbait informazio jasotzen zuela pertsona desberdinen eskutik (polizia, fiskaltza, epailea...),<sup>13</sup> nahiz eta informaziorako eskubide orokor bat ez aintsatzei; era berean, intimitaterako eskubidea, berariaz aldarrikatu gabe, nolabait zaintzen zen<sup>14</sup>; eta gauza bera esan dezakegu osotasun fisiko eta psikikoaz<sup>15</sup>. Gainera, eta batez ere biktima zehatz batzuentzat (indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren kontrako biktimantzat, terrorismoaren biktimantzat,...) laguntza sozial eta ekonomikoak aurreikusi dira.

10. Esaterako, IDSADBLSLk Espainian burututako indarkeria eta doluzko delituen biktima zuzenak eta zeharkakoak babesten ditu, heriotza edo gorputz-lesio larriak edo osasun fisiko edo mentalean kalte larriak pairatzen badituzte, baita sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak ere, nahiz eta haiek indarkeriarik gabe burutu (1. art.). ABJLk, aldiz, espainiar lurraldean dauden hemezortzi urtetik beherakoak zaintzen ditu (1. art.), eta GIBONLk, berriz, «genero indarkeriaren biktima diren emakume guztiek, beren jatorria, erlijioa edo beste edozein kondizio edo inguruabar pertsonal edo soziala alde batera utzita» (17. art.).

11. Hauetan, Ministerio Fiskalaren esku-hartzea ezinbestekoa izanik, biktimarena hondarrezko bihurtzen da. Haren jardura, berriz, ezinbestekoa da delitu pribatueta. Gainera, delitutik eratorritako erantzukizun zibila eska dezake, akusatzaile partikularra izan gabe, aktore zibil huts legez arituz. Horietan guztietan, zigor-prozesuaren fase desberdinetan, hainbat prozeduratan, biktimak duen parte-hartzea aztertzen dugu: Ordeñana, 2014: 71-152.

12. Egoera hori aspaldi salatu zuten, beste askoren artean, R.M. Angosto Agudo-k (Angosto Agudo, R.M. (2000): «La víctima. Posición procesal y medidas de protección», *Estudios jurídicos. Cuerpo de Secretarios Judiciales*, 1. zk.) eta V. Magro Servet-ek (Magro Servet, V. (2009): «Hacia una ley integran de la víctima en el proceso penal: una propuesta sistemática», *Diario La Ley*, 7.226. zk.).

13. Informazio-gune garrantzitsuena, prozedura orotan, akzioen eskaintza da (PKLren 109. eta 110. art.). Gainera, prozedura laburtuan idazkariak biktimari, idatziz, epaiketa noiz eta non ospatuko den jakinarazi behar dio, nahiz eta parte hartu behar ez (PKLren 785.3 art.). Orobat, sententziaren berri ere emango dio, nahiz eta prozesuan jardun ez (PKLren 789.4 art.), baita apelazioa aztertzeo burutuko den bistarena ere, nahiz eta bere parte-hartzea beharrezkoa ez izan (PKLren 791.2 art.). Biktima bereziek edo zehatzek jaso beharreko informazioaren inguruan xehetasun gehiago xedatzen dute aipatutako lege bereziek (IDSADBLSLren 15. art.; GIBONLren 18. art., ...)

14. Ezin uka daiteke nazioarteko eta Estatuko arauak galdatzen duten zigor-prozesuaren publikitateak biktimaren intimitatea oztopatzen duela, nahiz eta publikitate hori aldarrikatzen duen arau orok salbuespenak jaso. Berariaz eta bereziki babesten dute biktimaren intimitatea haren inguruko lege bereziek (IDSADBLSLren 15.5 art., GIBONLren 63. art., TBAOBLren 42. art., ...). Kontu honetan sakontzeko: Martín Ríos, M.P. (2012): *Víctima y justicia penal*, Atelier,artzelona, 480-486.

15. Bi hauek, ikerketa-fasean, polizia zaintzen bazituen, instrukzioan epailearen ardura bihurtzen ziren, kautelazko neurrien bitartez bereziki zainduz, neurriok epaiketan zehar mantendu zitezkeelarik. Sententziak berak ere biktimaren osotasun fisiko eta psikikoa bermatzea lortzera bideratutako hainbat neurri jaso zitzakeen. Honetan sakontzeko: Ordeñana Gezuraga, I. (2014): *Biktimaren estatutu juridikoa Espainiako zigor zuzenbide juridikozionalan*, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 179-191.

Eremu horretan, aurrerapen izugarria izan ziren 35/1995 Legeak sortutako Biktimari Laguntzeko Bulegoak, autonomia-erkidegoek, eta gureak bereziki, horien alde egindako dema bereziki txalotu behar dugularik<sup>16</sup>. Ezin dugu ahaztu, ezta ere, BEren aurretik biktimak pairatzen zuen egoeraren inguruan, zigor-justiziaren egikaritzan rol garrantzitsuagoa izan behar duen uste egokian, delitugilearekin harreman sakonago bat izateko bide gisa, joan den mendeko 80ko hamarkadatik, justizia leheneratzailearen eskutik<sup>17</sup>, legezko euskarri mengel batekin, zigor-bitarterkaritza suspertu dela<sup>18</sup>

Beraz, argi gera bedi, kritika gisa baino areago egiaztapen gisa, biktimaren aintzatespen eta babesari dagokionez, gure ordenamendu juridikoan ez garela zerotik hasi; BEren aurretik jada hari zenbait eskubide egozten zitzaizkion, nahiz eta era zehaztugabea eta segurtasun askorik gabe izan, hainbat lege eta arautan sakabanatuta. Aitortu behar dugu, aldi berean, oro har, legelariak zenbait biktima talde bereziki zaindu dituela (genero-indarkeria, adingabeak, terrorismoa...), biktimen artean desberdintasun gogorrek sortuz, eta zigor-prozesuan, delitugilearen bermeez arduratuta, biktimari edozein lekukori ematen zaion tratua eman diola, delitua zuzenean pairatu duen persona dela ahaztuz. Horrenbestez, 4/2015 Legea indarrean sartu aurretik delituaren subjektu pasiboaren inguruan bazegoen zer esanik eta zer egirik.

Azken lege horrek kontua nola jorratu duen ikusi aurretik baina, bere mementoa aztertzea komenigarria iruditzen zaigu. Zergatik onartu zen orain bi urte? Zentzu horretan, lehenengo eta behin, Estatu osoan, gizarteak, oro har, eta agente juridikoek, bereziki, zuten aldarrikapen zahar bat dela esan behar dugu. Aspalditik atzematen zen biktimaren aintzatespena eta babes beharrezkoak zirela, hura ordenamendu juridikoak guztiz ahaztuta zuela argudiatuta. Irakurketa juridiko zuzenean, Espainiako Konstituzioak xedatzen duen epaibidezko babes eraginkorrerako oinarriko eskubidea (24. art.), epaileek *ius puniendi*-a aplikatzeko orduan, delitugileari soilik ez ezik, biktimari ere bereziki aitortu behar zitzaiola azpimarratzen zen<sup>19</sup>. Ideia hauek ez ditugu ulertu behar Espainiako Estatuaren mugen barruan, haratago baizik. Zehazki, *Alternative Dispute Resolution* deritzon mundu mailako mugimenduaren esparruan kokatu behar ditugu. Ideologia horrek, *ius puniendi*-aren aplikazioan Estatuaren monopolioa zalantzat jarri gabe, zigor-sistemak bere helburu edo funtzioak (erretributiboa, prebentzio berezia eta orokorra) betetzeko

---

16. Lehenengo Valenzian sortu zen 1985ean. Catalunya eta Barlear Uharteek berea 1989an antolatu zuten. Euskadikoa 1991tik dabil martxan. Horien jatorri eta lanaren inguruan sakontzeko: Zaragoza Aguado, J.A. (2000): «La víctima y su protección asistencial en el derecho español», *Estudios Jurídicos. Ministerio Fiscal*, 2. zk.

17. Iparramerikarrek *restaurative justice* deritzenaren ildotik.

18. Honen ezaugarriak eta eboluzioa azaltzen ditu: Barona Vilar, S. (2009): «Mediación penal como pieza del sistema de tutela penal en el siglo XXI. Un paso más hacia la resocialización y la justicia restaurativa», *Revista de Derecho Procesal*, 26. zk. Antzean, González Cano, M.I. (2009): «La mediación penal en España», in S. Barona (zuz.), *La mediación penal para adultos. Una realidad en los ordenamientos jurídicos*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 19-52.

19. Ildo honetatik, Escaler Bascompte, R. (2004): «La atención a la víctima después de las últimas reformas procesales», *Justicia: Revista de Derecho Procesal*, 1.-2. zk. Orobat, beste askoren artean, Ramos Méndez, F. (1995): «La tutela de la víctima en el proceso penal», *Justicia: Revista de Derecho Procesal*, 3.-4. zk.

dituen gabeziak azpimarratuz, gizartea, delitugilea eta biktima bera gehiago eta hobeto asetzen dituen aukerak bilatzera deitzen du, justizia erretributibo huts batetik leheneratzaile baterako iraganbidea aldarrikatuz. Justizia-paradigma berri honek biktimari dagokion protagonismoa eman nahi dio, bizi izan duen ahanztura edo lozorrotik ateraz<sup>20</sup>. Kontinente zaharrear, Europar Batasunaren magalean, aurreko ideietan oinarrituta, bestelako aurrekariak alde batera eginda<sup>21</sup>, 2001ean 2001/220/JAI zigor-prozesuan biktimaren estatutua arautzen zuen Kontseiluaren Erabaki Markoa onartu zen<sup>22</sup>. Azken horrek porrot izugarria ezagututa<sup>23</sup>, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentarauak, delituen biktimen eskubide, laguntza eta babesaren inguruan gutxieneko arauak ezartzen dituenak, ordezkatu zuen<sup>24</sup>. 2015eko azaroaren 16a baino arinago transponitu behar zen zuzentarau hori izan zen, Espainian, 4/2015 Legearen bitartez, BE arautzea ahalbidetu zuena.

### 3. Bigarren kritika: baina nor da egun biktima? Biktimaren kontzeptuaren inguruko zenbait iruzkin

BEk biktimaren kontzeptu bakarra eta zabala<sup>25</sup> aurkezten du zuzeneko biktima eta zeharkakoa desberdinduz, baina biei eskubide berdinak egotziz. Zehazki, 4/2015 Legeak biktimatzat jotzen du, ez bakarrik bere pertsonaren edo ondarearen gainean kalte bat pairatu duen pertsona fisikoa<sup>26</sup>, baizik eta baita bere ahaideak ere (ezkontide edo bikotea, zuzeneko lerroko senideak<sup>27</sup>, neba-arrebak eta biktimaren kargupeko pertsonak hirugarren maila arte), delituak biktima zuzenaren heriotza edo desagertzea sortu badu edo horrek haiei kalte sortu badie<sup>28</sup>.

---

20. Mundu mailako mugimendu honetan sakontzeko, Ordeñana Gezuraga, I. (2009): *Solución jurisdiccional del conflicto laboral vs solución extrajurisdiccional*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 536. or. eta h.

21. Horrela, indarkeria-egintzen biktimiei kalteordain ekonomikoa aintzatetsi zieten Europako Parlamentuaren 1981 eta 1989ko ebazpenek edo bereziki emakumea eta umeak zaintzera bideratutakoek (1986an, 1994an, 1995ean, 1997an...). Guztien berri, Ordeñana Gezuraga, I. (2014): *Biktimaren estatutu juridikoa Espainiako zigor zuzenbide jurisdikzionallean*, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 237-244.

22. Hau izan zen, lehen aldiz, nazioarteko mailan, biktimaren beharrianak era bateratu eta antolatuan aurreikusi eta asetzeko asmoa erakutsi zuen araua. Haren nondik norakoak labor-labor azaltzen ditu: Tomé García, J.A. (2006): «El Estatuto de la víctima en el proceso penal según la Decisión Marco del Consejo de la UE de 15 de marzo de 2001 y su incorporación en el ordenamiento jurídico español», in T. Armenta Deu, F. Gascón Inchausti eta M. Cedeño Hernán (koor.), *El Derecho procesal penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*, Comares, Madril, 265. or. eta h.

23. Porrot horren nondik norakoak azaltzen ditugu Europako Batzordeak berak gaiaren inguruan emandako txostenetan oinarrituta: Ordeñana Gezuraga, I. (2014): *Biktimaren estatutu juridikoa Espainiako zigor zuzenbide jurisdikzionallean*, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 274-282.

24. Honen nondik norakoak ulertzeko: Oromí Vall-Llovera, S. (2013): «Víctimas de delitos en la Unión Europea: análisis de la Directiva 2012/29/UE», *Revista General de Derecho Procesal*, 30. zk. eta Pereira i Puigvert, S. (2013): «Normas mínimas para las víctimas de delitos: análisis de la Directiva 2012/29/UE: especial referencia al derecho de información y apoyo», *Revista General de Derecho Europeo*, 30. zk.

25. Gaztelaniaz, bere aitzinsolasak dioenez, «omnicomprensivo».

26. Delitu baten ondorioz sortutako lesio fisiko edo mentalak, emozio-kalteak edo kalte ekonomikoak aipatzen ditu bereziki BEren 2. artikulua.

27. Gurasoak eta norberaren edo bikotekidearen seme-alabak, alegia.

28. Betiere, ahaide horiek biktima zuzenaren heriotza edo desagertpenaren erantzule edo arduradun ez badira (BEren 2. art.)

Biktimaren kontzeptu hau ez da espainiar legelariaren asmakuntza; 2012/29 UE Zuzentzauden transposizio hutsa da, nahiz eta hark zeharkako biktimaren ideia zenbait senitartetara mugatu<sup>29</sup>. Gauzak horrela, txalogarria iruditzen zaigu BEk, biktima, horrek zigor-prozesuan duen paperaz gain edo haratago definitzea; izan ere, biktimak duen —eta izan behar duen— lehenengo eskubidea berak pairatutako delituaz arduratzen ari den prozesuan izan nahi duen parte-hartzea erabakitzea baita. Ideia hori bikain ezkontzen da lan honen tesi nagusiarekin: biktimak galdatzen eta merezi duen eta bere lehenengo beharrezana den justizia zigor-prozesuaren testuinguruan eman eta antolatzen du gizarteak, zigor-prozesuak, aldi berean, bere beste beharrezanei ere erantzun diezaikeelarik.

Aurreko espainiar legediaren eta aipatutako 2012/29 EB Zuzentzauden ildotik, BEk beharrezan edo ahultasun berezidun biktimak aintzatesten ditu (umeak, desgaitasuna duten pertsonak, kolektibo bereziak —genero-indarkeria, terrorismoa...— eta abar). Guk, oro har, biktimaren egoeraz arduratuta —biktima guztiena, ez bakarrik batzuen—, ez diegu berezitasun horiei erreparatuko. Izan ere, berehala aipatuko dugun moduan, BEren helburua biktima duin bihurtzea edo egitea bada, nola ezkontzen da xede hori biktimen artean desberdintasunak egitearekin? Kritika nagusi honi beste batzuk gehi dakizkioke. Esaterako, biktima burututako delituarekin lotzen du espainiar legelariak, delitu-saialdiek biktimak sortzen dituzten edo ez argitu barik. Era berean, biktima pertsona fisikoarekin uztartzen du, pertsona juridikoek ere delituen ondoriozko kalte ekonomikoak paira ditzaketela ahaztuta<sup>30</sup>. Larriagoa oraindik, biktimaren definizio berri hau (delituaren subjektu pasiboa baino zabalagoa baina kaltetua baino mugatuagoa) ez da jasotzen edo erabiltzen ZKn, PKLn edo Presondegietako Lege Orokor organikoan, eta ezinbestekoa da guztiak bateratzea, kontzeptu bakar bat erabiliz.

#### 4. Hirugarren kritika: BEren aplikazio-eremuaren inguruan

Biktima bereziki zaintzera datorren 4/2015 Legearen aplikazio-eremua zehazteko orduan, lurraldetasun-printzipioan oinarritutako irizpide objektiboa gailentzen da: Espainian gertatutako edo bertan jazar daitezkeen delituen biktimei zaie aplikagarri, haien nazionalitatea, adin nagusikoak diren edo ez, eta Espainian legezko bizitokia duten edo ez, berdin izanik (BEren 1. art.)<sup>31</sup>. Elementu hori, berez, guztiz laudagarria bada ere, haren praktikotasuna, era berean, oso zalantzarria da, Espainian justizia unibertsalaren gainean gero eta murrizgarriagoa den arauketarekin<sup>32</sup> talka egiten baitu.

---

29. Honekin kaltea pairatu duten hirugarrenak alde berean uzten ditu, oinordetza kontuan Kode Zibilak jarraitzen duen irizpideari segituz. Ildo honetatik, Gutierrez Romero, F.M. (2015): «Estatuto de la víctima del delito: algunos comentarios a la Ley 4/2015», *Revista Aranzadi Doctrinal*, 7. zk.

30. Kalte ekonomiko hau pairatzea biktima zuzena izateko elementu bat denean, BEren 2 a) artikulua dioenez.

31. Irizpide honi, noski, aipatutako subjektiboa gehitu behar zaio, BE zuzenean edo zeharka biktimaizaera duten norbanakoei bakarrik (2. art.) aplikagarri izanik.

32. Bere oinarrian, Epai Boterearen Lege Organikoaren 23. artikuluan jasoa. Justizia Unibertsalaren inguruan ematen diren eztabaida nagusiak jasotzen ditu E. Metre Delgado-k (Metre, 2014). Antzera, Ollé, 2014.

## 5. Laugarren kritika: BEren helburuak direla-eta

BEk, bere hitzaurrean, jasotzen duen araudiaren helburuez mintzatzean, berenberegiri bost aurreikusten ditu, eta guk seigarren bat gehituko dugu. Horrela, lehenik eta behin, biktimaren duintasuna aintzatesiz, haren ondasun material eta moralak zaindu nahi dituela xedatzen du, gizarte osoarenak begiratzeko era direlakoan. Guztiz txalogarria. Gure irudiko biktimak gizartearen zati sentitu behar du bere burua, azken horri hura zaintzea eta galdu duen bakea bermatzea dagokiolarik. Horregatik BE gizarteak biktimarekin duen zortzat jo behar dugu; biktima aintzatesteko eta zaintzeko tresnatzat, alegia.

Gainera, legelariak berariaz dio BEren xedea dela biktimaren eskubide guztiak, prozesalari eta prozesuz kanpokoak, lege-testu bakarrean jasotzea. Gure ustez, eta hainbat elementuri erreparatuz, asmo hutsean geratzen da helburu hori. Batetik, 4/2015 Legeak berariaz xedatzen du, 3.2 artikuluan, biktimaren eskubideen egikaritzea «lege honetan eta berau garatzen duten erregelamenduzko xedapenetan xedatutakoaren arabera zuzenduko da, bai eta legedi berezian eta aplikatu beharreko prozesu-araueetan xedatutakoaren arabera ere». Arau larregi (eta desberdinak!) iruditzen zaizkigu gauza onerako. *Lege ferenda*, BEk PKLko titulu edo kapitulu bat izan behar duela uste dugu<sup>33</sup>, biktimak zigor-prozesuan duen parte-hartzea edozein dela ere (aktiboa, akusatzaile moduan; pasiboa, lekuko huts gisa edo inolakoa). Aipatutako legelariaren xedea bete nahi bada, PKLn jasotako biktimaren inguruko araudiak beste lege batzuetara ahalik eta igorpen gutxien izan behar duela uste dugu. Era berean, eta helburu honen inguruan, BEk duen edo dakarren erregimen edo araubide juridiko osagatubea salatu behar dugu; izan ere, egun aipatutako 3.2 artikulua iragartzen duen erregelamendu bidezko garapena existitzen ez baita<sup>34</sup>.

Espainiako legelariak esanbidez adierazten du, aztertzen ari garen legearen hitzaurrean, 2012/29/EB Zuzentarauaren gutxiengoak gaintu nahi dituela, BEn espainiar gizartearen eskaerak eta beharrianak jasoz. Azken desio hori bereziki txalotuz, ez dugu uste Espainiako legelariak helburu hori bete duenik, ez duelako ausardiarik izan aipatutako zuzentzarautik urruntzeko, biktimaren babesa indartzeko. Are gehiago, ikusiko dugunez, egin duenean emaitza kaxkarrarekin egin du<sup>35</sup>.

BEren helburu gisa aurkezten dira, baita ere, biktimiei justizia-balioa eskaintzea eta haien bigarren mailako biktimizazioaren saihestea<sup>36</sup>. Biak guztiz txalogarriak. Ezin dugu ahaztu, batetik, biktimak duen eskubide garrantzitsua Espainiako Konstituzioak 24. artikuluan aintzatesten duen epaibidezko babes eraginkorrerakoa dela eta horren islan zigor-prozesuak izan behar duela BEren ardatz nagusia: horretan eta horren bidez eskaintzen dio gizarteak justizia, aldi berean haren beste beharriari ere erantzunez. Bestalde, eta biktimaren bigarren mailako biktimizazioaren inguruan, ezin uka daiteke zigor-prozesuak, orain arte, biktima

33. Beraz, lege honi izaera prozesala leporatzen diogu eta ez materiala.

34. BEk izan duen erregelamendu bidezko garapen bakarra abenduaren 11ko 1109/2015 Errege Dekretua da, Delituen Biktimiei Laguntzeko Bulegoak arautzen duena, alegia.

35. Betearazpenean biktimaren parte-hartzea arautu duenean kasu.

36. Bigarren mailako biktimizazio deritzo zigor-prozesuaren garapenean zigor-sistemak berak biktimari sortzen dizkion kalte material eta moralen multzoari. Kontzeptu horren inguruan, oso interesgarria da *García Magariños-en lana* (García Magariños, 2011).

nahiko ahaztuta izan duela ustez delitugilea den pertsonaren eskubideetan indar gehiago eginez. Horren harira, autore batzuek BEri, ixilbidez bada ere, beste helburu bat egozten diote<sup>37</sup>: zigor-prozesuan, ustezko delitugilearekiko, biktimaren posizioa orekatzea, bere lekuko hutsaren papera gaindituta, ohiko eskubideekin bat (bereziki, akusazio partikularra) beste batzuk aintzatetsiz (largespenak errekurrizteko edo betearazpenean parte hartzeko aukerak adibide). Gure aburuz lege berri honen ahuleziarik nabarmenaren aurrean gaude. Biktima babestu nahi bada eta horretarako zigor-prozesuan haren posizioa hobetu nahi bada —helburu guztiz txalogarriak—, ezin direlako inoiz ustezko delituegilearen eskubideak murriztu<sup>38</sup>.

## 6. Bosgarren kritika: BE antolatzeko sistematika desegokia

Bereziki kritikatzan dugu BEk biktimaren eskubideak egituratzeko erabiltzen duen sistematika. Haren 3.1 artikulua, biktimaren eskubide guztiak aurkezten dituen<sup>39</sup>, argi uzten du zigor-prozesua dela gizarteak biktimari eman behar dion arretaren erdigunea. Horrela, gizarteak biktimari eskaini nahi dion guztia (babesa; informazioa; laguntza; prozesuan parte-hartze aktiboa; errespetuzko tratua, banakakoa, profesionala eta diskriminaziorik gabekoa, eta justizia leheneratzailea) zigor-prozesuan gauzatu behar da, eta horiek guztiak beti epaileek zuzenean ematen ez badituzte ere, bai eskaintzen dituzte beren lankide edo laguntzaileen bidez (polizia, fiskaltza, gizarte-zerbitzuak, biktimari arreta emateko bulegoak...). Beraz, argi gera bedi biktimari aintzatesten zaion eskubide oro —bai prozesal hutsak, bai prozesutik kanpokoak— zigor-prozesuaren inguruan dabilela, horren aurretik, bitartean edo ondoren aitortuz. Hala ere, ez du espainiar legelariak hori beren-beregi aitortzen. Are gehiago, 2012/29/EB Zuzentarauaren ildotik<sup>40</sup>, atariko titulu bat eta ondorengo beste lau titulu desberdintzen ditu<sup>41</sup>, zigor-prozesua biktimaren babesaren ardatz bihurtu gabe. Guztiz gaitzesgarria den errealitate baten aurrean gaudela argi utzi nahi dugu. Askoz egokiagoa litzateke 2001/220/JAI Kontseiluaren Erabaki Markoak jarraitzen zuen sistematika kopiatzea, zeinak ezein titulu edo kapitulu desberdindu gabe, biktimaren eskubide guztiak zigor-prozesuaren testuinguruan aurkezten zituen.

Bestalde, eta sistematikarekin ez baizik edukiarekin lotuta, deigarria da estatutu izena duen arau honetan bakarrik biktimaren eskubideak jasotzea. Zuzenbidean aditua den edonork jakin badaki edozein estatuturen edukia eskubideak eta

37. Bereziki, Magro, 2015.

38. Zentzu horretan, 4/2015 Legea bera, oro har, teknikoki nahiko traketsa da, biktimaren egoera arautzera eta hobetzera zuzenduta, ustezko delitugileari eragiten dioten zenbait elementu aldatzen dituelako (bere lehenengo xedapen gehigarrian: sumarioaren sekretua, ahozko epaiketan publizitate-printzipioaren aplikazioa,...). Lotsagarria.

39. Gaztelaniazko bertsioan —oso idazketa txarrarekin, horregatik ez gara ausartzen euskarara ekartzea— «toda víctima tiene derecho a la protección, información y apoyo y asistencia y atención, así como a la participación activa en el proceso penal y a recibir un trato respetuoso, profesional, individualizado y no discriminatorio desde su primer contacto con las autoridades o funcionarios, durante la actuación de los servicios de asistencia y apoyo a las víctimas y de justicia restaurativa, a lo largo de todo el proceso penal y por un periodo de tiempo adecuado después de su conclusión, con independencia de que se conozca o no la identidad del infractor y el resultado del proceso».

40. Ez dezagun ahaztu espainiar legelariak zuzentaru hori hobetzea duela helburu!

41. Lehenengoak oinarriko eskubideak jasotzen ditu; bigarrenak biktimaren parte-hartze aktiboa zigor-prozesuan; hirugarrenak biktimen babesa, eta laugarren eta azkenekoak xedapen komunak.



betebeharrak direla. BEk ez du jasotzen biktimaren betebeharrak, iruzurra egiten duenean jaso dituen laguntzak itzultzekoa izan ezik<sup>42</sup>. Biktimari duintasuna aintzatetsi nahi bazaio eta zigor-prozesuan merezi duen tokia eman, eskubideekin batera, betebeharrak egotzi behar zaizkio; adibidez, Espainiako Konstituzioak (118. art.) jasotzen duen Justizia Administrazioarekin kolaboratzekoa, edo bere burua babesteko behar dituen neurriak eskatzekoa. Horrela argi geratuko litzateke justizialalioa gizarte-balio bat dela, guztion lana eta lankidetzak galdatzen duena, betebeharrak eta zama gisa, baina, era berean, guztioi mesede egiten diguna.

## 7. Seigarren kritika: biktimaren oinarrizko eskubideen inguruan

BEren I. tituluak biktimaren oinarrizko eskubideak arautzen ditu. Berehala atzemango dugunez, nahiz eta legelariak espresuki ez esan, guztiak zigor-prozesuaren inguruan egikaritzen dira. Bakoitzaren azterketa kritikoa egingo dugu hurrengo lerroetan.

Lehenik eta behin, salaketa jartzen duenetik jarduerak ulertzeko eta ulertua izateko eskubidea aintzatesten zaio, baita zigor-prozesuan ere (4. art.). Horretarako, biktimarekin egiten den komunikazio oro, idatzizkoa zein ahozkoa, hizkuntza argi, erraz eta ulerterrazean, haren ezaugarri eta beharrezanekin bat, egiteko betebeharrak jasotzen da. Eskubide hau, dudarik gabe txalogarria, aurretik herritar ororentzat aurreikusten zuen Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutunak<sup>43</sup>. Bada berrikuntza bat: biktimari, hasieratik, bere abokatuaz gain, beste pertsona baten laguntza izateko aintzatesten zaion eskubidea. Ondo iruditzen zaigu.

Era berean, biktimari agintari eskudunekin duen lehen harremanetik informazioa jasotzeko eskubidea aitortzen zaio, eta eskubide hori prozeduraren fase bakoitzean eguneratu behar dela xedatzen du BEk. Are gehiago, BEk biktimak jaso beharreko informazio zehatzaren zerrenda jasotzen du (5. art.)<sup>44</sup>. Zerrenda horretan baina, faltan somatzen dugu biktimari Ministerio Fiskalak zigor-prozesuan duen paperaz ezer ez esatea, bera baita bere interesak defendituko dituen epaiketaren ez agertzea erabakitzen badu.

Guztiz lotuta, biktimari zigor-kausaren gaineko informazioa jasotzeko edo ez jasotzeko eskubidea aitortzen zaio. Lehenengoaren aldeko hautua eginez gero, epaiketaren eguna, ordua eta tokia jakinaraziko zaizkio. Horretarako, BEk PKLren 785.3 eta 791.2 artikulua aldatzen ditu. Gainera, akusazioaren edukiaren eta ondorengo ebazpen garrantzitsuenen berri emango zaio (7. art.). Argi esan behar dugu, oraingoan, eskubide honen formulazioa, biktimari aukeratzeko aukera emanez, oso egokia iruditzen zaigula.

Biktimari, salatzailea den heinean, salaketaren kopia ziurtatu bat jasotzeko eskubidea aitortzen zaio eta behar duen hizkuntza-laguntza izatekoa (6. art.),

---

42. BEren 35. artikuluan eta 1109/2015 Errege Dekretuan garatua.

43. Honen inguruko iruzkin orokorrak Glover, 2002, eta, geroago, Blázquez, 2010.

44. Zerrenda honetan jurisdikzioaren inguruko eta hortik kanpoko elementuak jasotzen dira (salaketaren ingurukoak, kalte-ordainak, prozedura, bere eskubideen kontrako erabakien kontrako helegiteak...), nahiz eta lehenengoak gailendu.

aurretik ere espainiar zuzenbideak xedatzen zuena (PKLren 268. II. art.), nahiz eta praktikan zuen eraginkortasuna zalantzazkoa izan<sup>45</sup>. Ez zen aurrakusten, gure ustez, legelariak era oso traketsean arautu duen biktimaren gogoetarako epe baterako eskubidea. Horrekin bat, katastrofe, kalamidade publiko edo biktima ugari sor dezakeen eta delitua izan daitekeen bestelako gertakari baten aurrean, abokatu eta prokuradoreek ezin dizkiete beren zerbitzuak biktimei eskaini, gutxienez, 45 eguneko epean. BEk 8. artikuluan arautzen duen eskubide hau espainiar legelariaren ekarpena (asmakuntza, alegia) da, hau da, 2012/29/EB Zuzentzauden gutxiengoak hobetu nahi dituen xedapen horietakoa alegia<sup>46</sup>. Ekarpene eskasa da oso. Biktimak abokatu eta prokuradorearen laguntza eskatzeko eskubidea, arrazoizkoa ez ezik, lehentasunezkoa ere bada. Legelariak biktima abokatu eta prokuradoreen jazarpenetik babestu nahi badu,<sup>47</sup> haiei galdatu behar die horrelakorik ez egiteko, dagokien betebeharra ezarri, Espainiako Abokatzaren Kode Deontologikoak egiten duen gisa<sup>48</sup>.

Bikainki, gure irudiko, BEk biktimari, ikerketa- edo epaitze-fasean, gaztelania edo kasuan-kasuan erabiltzen den hizkuntza ulertzen ez badu<sup>49</sup>, itzulpenarako eta interpretaziorako eskubidea aintzatesten dio. Are gehiago, eskubidea indartzeko asmoz, epaileak hura ukatuz gero, haren erabakiaren kontra helegitea jartzeko aukera aintzatesten dio biktimari (9. art.). Beraz, eskubidearen egituraketa osoa da, bermeekin jantzia, alegia. Hala ere, haren egikarritza zail samar ikusten dugu, batez ere, BEren bigarren xedapen gehigarriak jasotzen dituen eskubideen egikaritzak giza baliabide berririk edo gehiagorik izango ez duela xedatzen duelako. Egun epaitegietan dauden giza baliabideekin zerbitzu egokirik ematen ez bada, nola erantzun zaie berriki biktimari aintzatestsi zaizkion eskubide horiei?

Azkenik, BEren I. tituluak biktimari zera aitortzen dio: Herri Administrazioek, oro har, eskaintzen dituzten laguntza zerbitzuetara, eta, bereziki, Biktimei Laguntzeko Bulegoetara, doako sarrera konfidentziala (10. art.). Kasu horretan, berriro ere, legegilearen asmoa txalotu beharrean gaude, nahiz eta bizitzen ari garen krisi ekonomiko latzaren aurrean, zerbitzu eta bulego horiei Herri Administrazioek ematen edo eskaintzen dizkieten baliabideen inguruan zalantza handiak ditugun.

## **8. Zazpigarren kritika: biktimaren parte-hartzea zigor-prozesuan**

BEren II. tituluak, «Biktimak zigor-arloko prozesuan parte hartzea» izenpean, lehendabizi hari, PKLren eremuan, zigor-akzioa eta akzio zibila egikaritzeko edo/ eta lekuko moduan aritzeko eskubidea aitortzen dio. Ikerketa honen lehenengo lerroetan esan dugun bezala, bi aukera horiek aurretik ere bazituen biktimak. Berrikuntza moduan, PKLren 109. bis artikulua berria aipatu behar dugu: biktimari, zigor-prozesuan, delitua kalifikatu arte, edozein momentotan bertarutzen uzten zaio.

---

45. Bikainki, genero-indarkeriaren biktimen inguruan ikusi Antón, 2014.

46. Ez baita Europako ezein herritan holakorik jasotzen.

47. Ez dugu bestelako helbururik aurrakusten!

48. Bere 7.2 e) artikuluan, zehazki.

49. Euskara, kasu.

Hala ere, irizpide egokiari jarraituz, hasieratik alderdi ez bada, bera agertu aurretik egindakoak ez dira berriro egingo edo/eta prozesua atzera eramango. Gainera, aipatutako manuak, biktimen elkarteei eta legeak biktimen eskubideak babesteko ezohiko legitimazioa aitortzen dien pertsona juridikoei<sup>50</sup> zigor-prozesuan parte hartzeko aukera aintzatesten die. Ez dute horretarako fidantzarik aurkeztu behar<sup>51</sup>. Aipatutako biktimaren kontzeptu bateratuaren ondore, hura hilez gero, haren ahaidei (zeharkako biktimei, alegia) zigor-akzioa egikaritzeko aukera aitortzen zaie, horiek ere fidantzaren ordainketatik salbuetsiz (PKLren 281. art.). Horiek guztiak nahiko kontu baketsuak izanda, gehiago kritikatzeko da, biktima-aniztasuna dagoenean, prozesuaren ordena egokia edo beharrezko atzerapenik gabeko prozesurako eskubidea eragin daitekeela arazoituz, epaileari edo auzitegiari, alderdi guztiak entzun ondoren, ebazpen motibatuan, guztiak talde batean edo batzuetan, defentsa berarekin, aritzeko agintzeko legeak eskaintzen dion aukera. Horren inguruan, egia da Auzitegi Konstituzionalak aspaldi esan zuela taldeko defentsa edo ordezkari Konstituzioarekin bat datorrela<sup>52</sup>, baina erabaki horrek epaibidezko babes eraginkorrerako oinarriko eskubidearen ardatza den defentsa-eskubidean izan dezakeen eragina ere arduratzekoa da<sup>53</sup>.

Biktima lekuko gisa aritzeko aukeraren inguruan, gure aburuz, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren 3. eta PKLren 105. artikuluekin bat, *lege ferenda* egokia litzateke BEn berariaz jasotzea agertu ez den biktimari, ahozko epaiketa ireki ondoren eta hura egin baino lehen, zigor-akzioa edo/eta metatutako akzio zibila egikaritzeko egoki edo erabilgarri deritzen froga-elementuak Ministerio Fiskalari errazteko aukera edo —zergatik ez— betebeharra ezartzea. Testuinguru horretan, BEk PKLren 433. artikulua aldatu duela azpimarratu behar da, orain biktimari, deklaratzera doanean, bere ordezkari legalaz gain, bere aukerako beste pertsona baten laguntza izateko eskubidea aintzatestsiz. Era berean, deklaratzeko orduan, adingabeak eta judizialki osatutako gaitasuna duten pertsonak bereziki babesten dira, adituen eta Ministerio Fiskalaren esku-hartzea erraztuz.

Lege berriak biktimei, bai zuzenei bai zeharkakoei, largespen-ebazpena jakinarazteko betebeharra xedatzen du, eta nahi izanez gero, PKLrekin bat, hura errekurritzeko aukera eman, nahiz eta zigor-prozesuan aurretiaz agertu ez. Eragin anglosaxoi argiko neurri baten aurrean gaude, gurean eztabaidatua gertatu dena; izan ere, BEk PKLren 636. —prozesu arruntari dagokionez— eta 779. —laburtuari dagokionez— artikulua aldatu baititu, agertu ez den biktimari<sup>54</sup> kasazio-helegitea jartzeko 20 egun eman, agertu den biktimari eta Ministerio Fiskalari berari bakarrik 5 ematen zaizkienean. Are gehiago, aipatutako epearen luzapena, zalantza gabe,

---

50. Legezko aintzatespena eta biktimaren baimena izanez gero.

51. 4/2015 Legeak (azken lehenengo xedapenaren bosgarren puntuak) PKLren 281. artikulua aldatu ondoren.

52. Beste batzuen artean, era oso argian, Auzitegi Konstituzionalaren 193/1991 urriaren 14ko sententzia.

53. Gurekin bat, De Hoyos Sancho, M. (2016): «Novedades en el tratamiento procesal de las víctimas de hechos delictivos tras las reformas normativas de 2015», *Diario la Ley*, 8.689. zk.

54. Ez ahaztu BEren 7. artikuluaekin bat, nahiz eta epaiketan ez agertu, hala eskatu badu, honetan gertatzen den guztiaren berri izango duela.

usteko urratzailearen kontra doa. 4/2015 Legeak ezer esaten ez badu ere, aukera hori largespen askeari zein behin-behinekoari aplikatzearen aldekoak gara<sup>55</sup>.

Zigor-prozesuan biktimaren esku-hartzea sustatzeko, bere eskubideen egikaritzan egindako gastu eta kostu prozesalen itzulpena Estatuak egindakoen aurretik jasotzeko eskubidea aintzatesten zaio hari, bi baldintza betetzen badira: (1) kondenazko sententziak haien ordainketa agintzea, eta (2) delitugilea biktimaren eskariz kondenatua izan bada, Ministerio Fiskalak formalki akusaziorik egikaritu ez dituen delituengatik edo artxibatzeko ebazpena biktimak ezarritako helegitearen ondorioz ezeztatu bada (BEren 14. art.). Neurria guztiz egokia bada ere, disfrutatu ahal izateko jarritako baldintzak gogorak dira, praktikan oso gutxitan ematen direnak. Horregatik, eskubide hau, aukeratzat baino areago, heroi gisa aritu izan den biktimarentzako saritzat jotzen dugu.

Xede berarekin, biktimak zigor-prozesuan esku-hartzea alegia, doako laguntza juridikorako eskubidea eskatzeko izapidetza errazten dio EBren 16. artikulua: aurre-rantzean, zuzenean, bere eskubideez informazioa ematen dion funtzionario edo agintariaren aurrean edo Justizia Administrazioaren Biktimei Laguntzeko Bulego batean eskatu ahalko du, eta horiek eskaria kasuan kasuko Abokatu Elkargora bidaliko dute. Ezin dugu neurri hau txalotu besterik egin, aipatutako eskubidearen eskarriak normalean ekartzen duen bulego desberdinetatik erromesaldia ekiditen baitu.

Nazioartera begira, baina helburu berarekin, Espainian bizi diren biktimei Europar Batasuneko ezein estatutan pairatutako delituak espainiar agintarien aurrean salatzekeo eskubidea aitortzen zaie. Halaber, Espainiak jurisdikziorik ez duen kasuetan, delitua gertatu deneko estatuari salaketa ahalik eta azkarren igortzea aurreikusten da, kontuaren berri berehala biktimari emanez (17. art.). Neurri edo eskubide honek sentimendu gazi-gozo bat sorrarazten digu. Batetik, bereziki laudagarria da egun daukagun zirkulazio-askatasuna eta, normalean, gure herrian salatzea nahiago dugu, bertan geure burua seguruago atzematen dugulako. Bestalde baina, arestian aipatutako jurisdikzio unibertsalaren mugatzearekin ez da ondo ezkontzen neurri hau.

Ildo beretik, biktima bereziki zaintzeko, prozesuan kendu zaizkion ondasun itzulgarriak ahalik eta lasterren jasotzeko eskubidea xedatzen du BEren 18. artikulua. Ondasunok, zigor-prozesuaren garapen egokirako, agintarien esku mantentzea ezinbestekoa gertatzen deneko kasuak salbuesten dira. Biktimaren eskubide honen gainean bi iruzkin egin ditzakegu. Batetik, berriro, zigor-prozesua biktima babesteko orduan ardatza dela erakusten digu. Bestetik, eskubide honek PKLren 284. eta 334. artikuluen aldaketa sorrarazi duela azpimarratu behar da, biktimari polizia edo instrukzioko epaileak kendu dizkioten gauzen kontra helegitea aurkezteko aukera aintzatestiz. BEk ez du esaten zein helegite jarri behar duen biktimak kasu honetan. Gure ustez, biktima mesedetzeko eta kentze-neurria instrukzioko edo genero-

---

55. Matizazio bat: zigor prozesu jakinean biktima alderdia bada, ez dago inolako arazorik bi motatako largespenei aplikatzeko, baina hala ez bada, bakarrik askeari aplikatuko litzaioke, BEren xedapenekin ezkontzen den bakarra delako, hura bakarrik baita kasazio bidez helegingarria. Horrela dio, Gómez Colomer, J.L. (2015): *Estatuto jurídico de la víctima del delito*, 2. arg., Thomson Reuters-Aranzadi, Iruñea, 402. or.

indarkeriaren kontrako epaileak auto bidez ezarri behar duela aintzat hartuz, erabili beharreko helegitea erreforma da eta hori onartu ezean apelazioa<sup>56</sup>.

Bukatzeko, biktimari justizia leheneratzaileko zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aintzatesten zaio. Horren inguruan, BEren 15. artikulua jasotzen duen arauketa ez da egokiegia. Zerbitzuok delititik eratorritako kalte materialak eta moralak egokiro konpontzeko baliabide gisa definitzen ditu legegileak, eta bost baldintza ezartzen ditu zerbitzuok erabili ahal izateko: (1) urratzaileak bere erantzukizunaren arrazoi edo kari diren egitateak aintzatestea<sup>57</sup>; (2) hark bere adostasuna ematea; (3) biktimak ere hala egitea<sup>58</sup>; (4) biktimari bere eduki eta emaitzen berri ematea eta nola betearaziko diren jakinaraztea, eta (5) bitartekaritza-prozedurak bigarren mailako biktimizaziorik ez sortzea. Gainera, bitartekaritza-prozeduraren isilpeko izaera —alderdiek kontrakoa baimentzen ez badute, behintzat— eta bitartekariak isilpekotasuna gordetzeko duten betebeharrak profesionala esanbidez aintzatesten dira. Zein ahultasun hautematen diogu araudi honi? Batetik, legelariak generoa eta espeziea nahastatzen ditu: BEren 15. artikulua izenburua «Justizia leheneratzaileko zerbitzuak» da, baina haren araudia zigor-bitartekaritzara mugatzen da. Baina larriagoa oraindik, legelariak, gai honetan, oraindik existitzen ez den erregelamendu bidezko araudi batera igorpena egiten du. Ondorioz, segurtasun-gabezia juridikoa osoa da. Ordenamendu juridiko batek izan dezakeen hutsunerik gogorrena. Ezin dugu ahaztu Espainian egiten ari diren zigor-bitartekaritzako esperientziak araudi mengel baten magalean burutzen ari direla<sup>59</sup>. Horregatik, gure ustez, legegileak BEn, zigor-bitartekaritzaren oinarriak segurtasun juridikoz hornitzeko, gutxienez, *lege ferenda* ondorengoak arautu beharko lituzke: (1) zigor-bitartekaritzaren ofizialtasuna, (2) haren doakotasuna, (3) zein delitutan erabil daitezkeen, eta (4) zigor-prozesuan sortzen dituen ondoreak.

## 9. Zortzigarren kritika: betearazpenaren inguruan sortutako anabasa

Duda izpirik gabe, BEren elementurik berritzaileenaren aurrean gaude. Ikus dezagun, lehenik, era objektiboan, kontuaren inguruan 13. artikulua ekarri duen araudi berria. Horrekin bat, 4/2015 Legeaz geroztik, biktimari berriaz hiru auto errekurritzeko eskubidea aintzatesten zaio<sup>60</sup>: (1) espetxe-zaintzako epaileak, ZKren 36.2 artikuluaekin bat, delitu zehatzengatik kondenatuari<sup>61</sup>, zigorraren erdia iraungi baino lehen, hirugarren graduan sailkatzeko aukera aintzatesten diona; (2) epaile berdinak, ZKren 78.2 artikuluaekin bat<sup>62</sup>, aipatutako delituengatik edo talde edo

56. Gurekin bat, Gómez Colomer, 2015: 396.

57. Baldintza honek berme konstituzionala den erugabetasun-presuntzioarekin talka egiten du!

58. Baliabide hauen erabilera norberaren askatasunaren isla izanik, biek, edozein mementotan, beren adostasuna ezezta dezakete. Berriaz dio BEren 15.3 artikulua. Zigor-bitartekaritzan adostasunak duen garrantziaren inguruan, ikus Etxeberria eta Ordeñana, 2010.

59. Horren inguruan: Ordeñana, 2011.

60. Noski, ezagutzen dituelako, horien inguruan informatua izateko eskubidea (7. artikuluan jasoa) egikaritu duelako.

61. Erailketa, abortua, lesioak, askatasunaren kontrakoak, tortura eta osotasun moralaren kontrakoak, sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkakoak, indarkeriarekin edo beldurraraztearekin burututako lapurreta, terrorismoa eta gizakien salerosketa.

62. Elementu honetan BEk akats bat du; izan ere, ZKren 78.3 artikulua aipamena egiten dio, artikulua hori Zigor Kodea aldatu zuen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaz geroztik existitzen ez denean. Hori dela-eta, igorpena, guk egin bezalaxe, ZKren 78.2 artikulua egin behar da.

antolakuntza kriminal baten barne egiteagatik kondenatuari honako hauek baimentzen dizkiona: espetxe-onurak, irteteko baimenak, hirugarren graduari sailkatzea eta baldintzapeko askatasunerako denboraren zenbaketa betetako zigorraren mugarekin bat kalkulatzeko eta ez ezarritako zigorraren batuketaren arabera; (3) eta aipatutako delituengatik edo ZKren 36.2 artikulua tipifikatutako delituengatik baldintzapeko askatasuna aitortzen duen autoa, kondenatuari bost urteko espetxealdia baino gehiagoko zigorra ezarri bazaio.

Helegitearen aurkezpena iragartzeko biktimak ez du abokaturik behar, ebazpena jakinarazi eta ondorengo 5 eguneko epean egin behar du, Justizia Administrazioaren Letratuaren aurrean. Helegitea, berriz, aipatutako jakinarazpenaren ondorengo 15 egunetan aurkeztu beharko du. Edozelan ere, biktimak BEren 7. artikulua egikaritzen, berak pairatutako delituaren inguruko zigor-prozesuaren gaineko informazioa jasotzeko eskaera egin badu, espetxe-zaintzako epaileak, aipatutako hiru kasuetan, beti hari kontua helarazi beharko dio, bost eguneko epean egoki deritzon alegazioak egin ditzan.

Era berean, betearazpen-fasean, biktimari aukera aintzatesten zaio baldintzapeko askatasunean uzten den kondenatuari bere segurtasuna bermatzeko legeak aurreikusten dituen eta berak beharrezko deritzon neurri edo portaera-arauak ezartzea eskatzeko, baldin eta delitugilea harentzat arriskutsuak izan daitezkeen egitateengatik kondenatua izan bada. Orobat, ezarritako zigorraren betearazpenaren, delitutik eratorritako erantzukizun zibilaren edo/eta adostutako konfiskazioaren inguruan erabakitzeko epaile edo auzitegiari garrantzitsua izan daitekeen edozein informazio emateko ahalmena aintzatesten zaio.

Kontuaren gaineko araudi objektiboa azalduta, orain gure irakurketa subjektiboa. Aurretik iragarri dugun bezalaxe, gure aburuz, BEk sistema jurisdikzionalan egiten duen aldaketarik garrantzitsuenaren aurrean gaude. 4/2015 Legea indarrean sartu arte eta Espetxe Lege Organiko Orokorra indarrean sartu zenetik<sup>63</sup>, zigorraren betetzea Estatuaren ahalmen eksklusiboa zelakoan, horren betearazpen-fasean bakarrik Ministerio Fiskalari eta kondenatuari berari aitortzen zitzaizkien errekurrizko eskubidea. Egun, aipatutako delituetan eta betekizunekin, biktimari, fase honetan, errekurtsorako eskubidea aitortzen zaio. Harrigarriena da puntu honetan Espainiako legelaria 2012/29 Zuzentaraua baino askoz urrunago doala, azken horrek bakarrik xedatzen baitu biktimak, horrela nahi badu, informatua egon behar duela betearazpenaren inguruko ebazpenez. Beste hitz batzuetan, ez dio biktimari bestelako inolako paperik edo rolik ematen. Benetan deigarria da Espainiako legelariaren aukera, Europako beste estatuetan ez baitugu halakorik ikusten. Argi gera bedi guk ez dugula gaitzesten, zuzentzauren ildotik, biktimari zigorraren betearazpenaren inguruko informazioa ematea; ez duguna inola ere ikusten betearazpenaren haren parte-hartzea da. Zergatik? Batetik, zigorraren betearazpenaren biktimaren esku-hartze honek *ius puniendi*-aren aplikazioan Estatuaren monopolioarekin eta zigor orok bilatzen duen delitugileak birgizarteratzeko helburuarekin zuzenean talka

---

63. 1/1979, irailaren 26koa, Lege Organikoaz ari gara, urte bereko urriaren 5eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua. Haren azterketa kritikorako, ikus García Valdés, 1980.

egiten duelako<sup>64</sup>. Beste hitz batzuetan: betearazpenaren ezaugarri izan behar duen objektibotasuna arriskuan jartzen duelako; egoera berdinean, kondenatu desberdinei tratu desberdina ekar diezaiekeelako. Pentsatu, era berean, delitugile bera biktimia desberdinak sortu dituzten egitate tipifikatuengatik kondenatua izan bada, horrek ekar dezakeen anabasa. Gainera, ukazina da exekuzioan biktimaren parte-hartzeak askatasun eta espetxe-onuren baimenen murrizketa ekarriko duela. Nahiz eta ahalegin asko egin, ez dugu ulertzen puntu honetan legedi-aldaketa, zeren betearazpenak galdatzen duen objektibotasuna orain arte Fiskaltzak bikainki bermatu baitu, legezketasuna eta interes publikoa<sup>65</sup> zuzenki zainduz. Orain arteko araudiarekin bat biktimak Ministerio Fiskalaren jardura eskatu ahal izan du, hari informazioa eman eta eskatzeaz gain<sup>66</sup>. Zergatik ez du legelariak aukera hori indartu? Ikuspuntu gizartiar huts batetik ere biktimari aintzatesten zaion aukera berria erabat gaitzesgarria iruditzen zaigu. Aurretik esan bezalaxe, BEren helburu garrantzitsuenetariko bat biktimari bigarren mailako biktimizazioa ekiditea izanik, nola eska dakioke betearazpenean parte hartzea? Biktimari, behin eta berriz, pairatutako delitua, oro har, eta mina, bereziki, gogorarazteko bidea besterik ez da. Kontu honen inguruan gure iritzia zurrizteko azken argudio bat: Auzitegi Konstituzionalak berak esan du biktimari betearazpenean parte hartzeko aukera kentzeak, nahiz eta zigor-prozesuan alderdi gisa bertaratu, ez duela haren epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidea urratzen, berau biktimari zigor-prozesuan parte hartzeko aukera aitortuz asebetetzen baita<sup>67</sup>. Guztiarekin, uste dugu biktimari betearazpenean esku hartzeko aukera biktimen elkarte batzuek egindako presioaren fruitu besterik ez dela, mende-kua txalotzen duen justizia baten aldekoa, politika kriminal desegoki baten emaitza<sup>68</sup>.

## 10. Bederatzigarren kritika: biktimaren babes delata-eta

BEren III. tituluak delituen ikerketa, jazarpen eta epaiketan biktimen babes arautzen du. Berriro ere, gaiaren inguruko arauketa guztia zigor-prozesuaren inguruan antolatzen da, gure tesi nagusia (zigor-prozesuak biktimaren babesaren ardatza izan behar duela, alegia) elikatuz. Hiru haietan aritzen diren agintari eta funtzionarioei bereziki agintzen zaie biktimaren eta haren senideen bizitza, haien osotasun fisiko eta psikikoa, askatasuna, segurtasuna, sexu-askatasuna eta sexu-ukigabetasuna, intimitatea eta duintasuna zaintzeko, bigarren mailako biktimizazioa ekidinez. Horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte (19. art.). Helburu berdinarekin, biktimari bere urratzailearekiko kontaktua edo harramena

64. Argudio bera azaldu zuten Epaia Boterean Kontseilu Orokorreko 7 kidek, BEren gaineko txostena ematean, botu partikularra eginez. Ikus <[http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder\\_Judicial/Consejo\\_General\\_del\\_Poder\\_Judicial/Actividad\\_del\\_CGPJ/Informes/Informe\\_al\\_Anteproyecto\\_de\\_Ley\\_Organica\\_del\\_Estatuto\\_de\\_las\\_Victimas\\_del\\_delito](http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder_Judicial/Consejo_General_del_Poder_Judicial/Actividad_del_CGPJ/Informes/Informe_al_Anteproyecto_de_Ley_Organica_del_Estatuto_de_las_Victimas_del_delito)>.

65. Kondenatuaren birgizarteratzea barne.

66. Horrela ondorioztatzen dugu PKLren 773.1 artikulutik. Bereizki eta bikainki azpimarratzen du elementu hori F. Renart García-k (Renart, 2015).

67. Horrela adierazi zuen uztailaren 3ko 373/1989 Autoan (Laugarren atala). Horren atzetik dagoen argudio nagusia: betearazpen-fasea ez da zigor-prozesuaren zati, ondorio baino, horretan espetxe-administrazioak eta espetxe-epaileak, Ministerio Fiskalaren kontrolpean eta kondenatuari zor zaizkion bermeekin, zigor-prozesuaren ondore edo emaitzak betetzen direla begiratur.

68. Antzeko argudioekin, exekuzioan biktimaren parte-hartzeak kondenatuaren birgizarteratzera lagundu dezakeela esaten dutenen ahotsa ere jasotzen du P. Gómez-Escolar Mazuela-k (Gómez-Escolar, 2016).

ekiditeko eskubidea aintzatesten zaio (20. art.). Asmoa egokia da, beste kontu bat da errealitatea: komisaria edo polizia-etxe eta justizia-jauregietan horretarako baliabideak behar dira! Era berean, biktimaren intimitatea babesteko neurriak aurreikusten dira (22. art.). Lortzeko 4/2015 Legeak PKLren 681. eta 682. artikulua aldatzen ditu. Lehenengoak, epaileari, ofizios edo fiskaltzaren eskariz, biktimaren intimitatea babestera bideratutako zenbait neurri hartzeko eskuduntza aintzatesten dio<sup>69</sup>. Bigarrenak, aldiz, komunikabideen aurrean biktimaren eta haren ahaideen intimitatea babesten du, haien presentzia mugatuz eta haien irudiak eta identitatea grabatzea eta zabaltzea debekatuz.

Biktima bereziki zaintzeko xede berberarekin, zigor-ikerketan zehar, betiere zigor-prozesuari kalterik sortzen ez badio<sup>70</sup>, hari deklarazioa soilik beharrezkoa denean hartuko zaiola xedatzen du BEK; beharrezkoak ez diren atzerapenik gabe; ahalik eta gutxienetan; betiere bere ordezkari legalak eta berak nahi duen beste pertsona batek lagunduta. Era berean, azterketa medikoak ahalik eta gutxien izango direla xedatzen da, bakarrik zigor-prozesurako ezinbestekoak direnean<sup>71</sup> (21. art.).

Aipatutako neurri hauek guztiak biktima orokorrean, hau da, edozein biktima, babestera bideratuta daude. Baina, egokiro eta trebetasunez, 2012/29/EB Zuzentarauari jarraituz, BEK delituaren ikerketa-fasean eta epaiketan biktima jakinaren babes-beharrizan zehatzak aztertzea aurreikusten du. Lan hori dagokie, ikerketa-fasean, instrukzioko epaile edo emakumearen aurkako indarkeriakoari, fiskaltzari eta polizia, eta, epaiketan zehar, epaile edo auzitegiari. Neurriok biktimaren bigarren mailako biktimizazioa ekidin nahi dute eta berauek erabakitzeko aipatutakoek kontuan hartu beharko dituzte (1) biktimaren ezaugarri pertsonalak, (2) delituaren izaera, (3) biktimari sorrarazitako kalteen larritasuna eta errepikatze arriskua eta (4) delituaren ingurumariak. Guztiz egokiro legelariak neurri hauek ebazpen motibatuan erabaki behar direla eta biktimak aurkeztutako edo adierazitako beharrizanak kontuan hartuko dituztela arautzen du. Bikainki, baita ere, berariaz aintzatesten zaio biktimari bere babesari uko egiteko aukera. Ez dugu hain gustuko, ordea, BEK biktima babesteko neurri zehatzak (*numerus clausus*) aurreikustea<sup>72</sup>.

69. Hala nola sesioak atek itxita ospatzea, biktimaren identitatearen gaineko informazioa, zuzenean edo zeharka haren identifikazioa erraztu dezaketen datuena, edo haren babes-beharrizanak erabakitze kontuan hartu izan diren ingurumari pertsonalena, zabaltzea edo publikatzea debekatzea. Era berean, biktimaren edo haren senideen irudiak lortzea, zabaltzea edo publikatzea galaraz dezake.

70. Legelariak EBren berariaz jasotzen duen ñabardura, gure tesi nagusia indartuz.

71. Berritri ere gure teoriaren baieztatpena dakusagu.

72. BEK biktima zaintzeko ondorengo neurriak aurreikusten ditu. Ikerketa-fasean: (1) deklarazioak horretara bereziki zuzendutako instalazioetan jasotzea; (2) horretarako bereziki hezitako profesionalak jasotzea; eta (3) biktimaren sexu berekoa den pertsona (4) berberak egitea beti. Eta epaiketa-fasean: (1) biktimaren eta ustezko delitugilearen arteko harreman bisuala ekiditeko neurriak hartzea (horretarako, PKLren 448. eta 707. artikulua aldatzen dira); (2) biktima aretoan presente ez egotea; (3) biktimari bere bizitza pribatuaren gainean ez galdetzea (horretarako, PKLren 709. art. aldatzen da) eta (4) ikustaldia edo bista publikorik gabe ospatzea. Halaber, 19/1994 zigor-kausetan lekukoak eta perituak babesteko legeak aurreikusten dituen neurriak har ditzakete. Horrekin bat, lege horren 2. artikulua aplikatuz, posible da praktikatzen diren eginbideetan biktimaren izena, abizena, lantokia eta lanbidea, edo hori identifikatzeko balio duen beste daturen bat ez jasotzea, eta horien lekuan zenbaki edo bestelako kode bat erabiltzea. Orobat, zitazio eta jakinarazapenen ondorioetarako, biktimaren helbide edo bizileku gisa parte hartzen ari den organo juridikionalaren egoitza finka daiteke, horrek hari helaraziko dizkiolarik era egoki eta erresebatuan.



*Lege ferenda* egokiagoa iruditzen zaigu, inolako mugarik gabe, neurriok hartu behar dituenak, betiere legearekin bat, egokienak direnak aukeratzea edo eraikitzea.

## 11. Hamargarren kritika: bestelako helburuak eta muga nagusi bat

BEren azken tituluak («Xedapen Komunak») Biktimari Laguntzeko Bulegoak arautzen ditu<sup>73</sup> (27.-29. artikulua). Gainera, biktimarekin zerikusia duten erakunde guztiei (Justizia Ministerioa, autonomia-erkidegoetako justizia-sailak, Estatuko Fiskaltza Nagusia...) bertan lan egiten duten norbanako guztiak (epaileak, fiskalak, poliziak, bestelako funtzionarioak...) biktimaren babesaren inguruan hezteko galdatzen zaie (30. art.). Ildo beretik, Estatuari eta autonomia-erkidegoei, bakoitzak bere eskumenen barruan, biktimak babesteko behar diren protokoloak onartzeko eskatzen zaie (31. art.). Biktimaren babesa mundu mailako kontu bihurtuz, gai honetan Espainiako botere publikoen eta kolektibo pribatuen arteko lankidetzak eskatzeaz gain (32. art.), estatuaren arteko lankidetzak ere galdatzen du BEk (33. art.). Azkenik, botere publikoari biktimen aldeko sentsibilizazio-kanpainak egiteko eta komunikabideei, publiko zein pribatu, biktimaren intimitatea, duintasuna eta gainerako eskubideak bereziki zaintzea autorregulatzeko deia luzatzen zaie (34. art.)

4/2015 Legearen IV. tituluak jasotzen dituen helburu, baliabide eta asmo hauek guztiak olagaratu besterik ezin dugu egin. Zigor-prozesuaren eremuan, biktima aintzatesteko eta babesteko ezinbesteko tresna dira. Hala ere, usteak uste, erdi ustel izaten direnez, gure poztasuna ezin da mugagabea izan, errealitateak agintzen baitu. Legearen bigarren xedapen gehigarriak errealitateara azkar ekartzen gaitu. Haren esanetan, «lege honetan jasotako neurriek ezin izango dute langile-horniduren, -ordainsarien eta bestelako -gastuen gehikuntzarik ekarri». Zer uste ote du legelariak, helburu horiek guztiak orain arte egondako edo izandako baliabideekin (pertsonalak bereziki) lor daitezkeela? Erratuta dagoen susmo larria daukagu...

## 12. Ondorioak

Aurreko lerroak antolatzeke erabilitako metodologiak eta gaiaren inguruko elementuak azaltzeke erabilitako hedadurak gure ikerketaren ondorioak labur-labur aurkeztea zilegitzen eta behartzen dute.

4/2015 Legea zorrotzasunez irakurri eta azaldu dugu, 10 kritika nagusiren bidez BEk aurkezten dituen hutsune, ahulezia eta okerrak mahaigaineratuz. Baita horiek konpontzeko hainbat irtenbide aurkeztu ere. Ez dugu berriro horretan indarrik egingo. Hala ere, ez dugu tonu ezkorrak gailentzerik nahi. Azkenean, 2015. urtean legelariak BE arautu du eta hori txalogarria da. Beraz, gizarteak biktimarekin zuen zorra ordaintzeko lehen pausoa emana da. Etorkizunean egin beharrekoa, ordea, araudia hobetzea da eta lan horretarako legegileari hainbat aholku eman dizkiogu. Ea baten bat kontuan hartzen duen.

---

73. Biktimei mota orotako (aholkua, babesa...) laguntza emateko sortu diren bulego hauen araudia garatzeko 1109/2015 Errege Dekretua, abenduaren 11koa, eman zen. Bulego hauen egituraketa eta funtzioak bikainki azaltzen ditu F. Martín Diz-ek (Martín, 2016).

### 13. Bibliografía

- Aguado, J.A. (2000): «La víctima y su protección asistencial en el derecho español», *Estudios Jurídicos. Ministerio Fiscal*, **2**.
- Angosto Agudo, R.M. (2000): «La víctima. Posición procesal y medidas de protección», *Estudios jurídicos. Cuerpo de Secretarios Judiciales*, **1**.
- Antón García, L. (2014): «Barrera idiomática y derecho a la información de las víctimas de violencia de género», *Indret: Revista para el análisis del Derecho*, **2**.
- Barona Vilar, S. (2009): «Mediación penal como pieza del sistema de tutela penal en el siglo XXI. Un paso más hacia la resocialización y la justicia restaurativa», *Revista de Derecho Procesal*, **26**.
- Blázquez Martín, R. (2010): «La Carta de Derechos de los Ciudadanos ante la justicia, ocho años después», *Jueces para la democracia*, **68**.
- De Hoyos Sancho, M. (2016): «Novedades en el tratamiento procesal de las víctimas de hechos delictivos tras las reformas normativas de 2015», *Diario la Ley*, **8.689**.
- Escaler Bascompte, R. (2004): «La atención a la víctima después de las últimas reformas procesales», *Justicia: Revista de Derecho Procesal*, **1-2**.
- Etxeberria Guridi, P. eta Ordeñana Gezuraga, I (2010): «Zigor-bitartekaritza Espainian egokiro arautzeko ereduen bila: zigor-bitartekaritza Frantzian», *Uztaro*, **75**.
- García Magariños, J. (2011): «La víctima ante la justicia: aspectos jurídico-procesales de la protección y de la atención a la víctima en dependencias judiciales y policiales», *Ciencia Policial: revista del Instituto de Estudios de Policía*, **106**.
- García Valdés, C. (1980): *Comentarios a la ley general penitenciaria*, Civitas, Madrid.
- Glover, H. (2002): «Carta de derechos de los ciudadanos ante la Justicia», *Iuris: Actualidad y práctica del derecho*, **63**.
- Gómez Colomer, J.L. (2015): *Estatuto jurídico de la víctima del delito*, 2. arg., Thomson Reuters-Aranzadi, Iruñea.
- Gómez-Escolar Mazuela, P. (2016): «El estatuto de la víctima del delito y los juzgados de vigilancia penitenciaria», *Diario La Ley*, **8.755**.
- González Cano, M.I. (2009): «La mediación penal en España», in S. Barona (zuz.), *La mediación penal para adultos. Una realidad en los ordenamientos jurídicos*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Gutiérrez Romero, F.M. (2015): «Estatuto de la víctima del delito: algunos comentarios a la Ley 4/2015», *Revista Aranzadi Doctrinal*, **7**.
- Magro Servet, V. (2009): «Hacia una ley integral de la víctima en el proceso penal: una propuesta sistemática», *Diario La Ley*, **7.226**.
- , (2015): «Novedades de la Ley 4/2015, de 27 de abril, del estatuto de la víctima del delito y especial incidencia en la violencia de género», *Diario la Ley*, **8.638**.
- Martín Diz, F. (2016): «Real Decreto 1109/2015, de 11 de diciembre, por el que se desarrolla la Ley 4/2015, de 27 de abril, del Estatuto de la Víctima del delito, y se regulan las Oficinas de Asistencia a las Víctimas del Delito», *Ars Iuris Salmanticensis: Revista europea e iberoamericana de pensamiento y análisis de derecho, ciencia política y criminología*, **1**.
- Martín Ríos, M.P. (2012): *Víctima y justicia penal*, Atelier, Bartzelona.
- Metre Delgado, E. (2014): «Justicia Universal (o no)», *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, **108**.
- Ollé Sesé, M. (2014): «A vueltas con la justicia universal», *Política Exterior*, **160** (28. bol.).
- Ordeñana Gezuraga, I. (2009): *Solución jurisdiccional del conflicto laboral vs solución extrajurisdiccional*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2011): «Penal Mediation Service in a Basque Urban Local Court», *Oñati Socio-Legal Series*, **9** (1. bol.).

- , (2014): *Biktimaren estatutu juridikoa Espainiako zigor zuzenbide jurisdikzionalen*, Herri Ardulararitza Euskal Erakundea, Gasteiz.
- Oromí Vall-Llovera, S. (2013): «Víctimas de delitos en la Unión Europea: análisis de la Directiva 2012/29/UE», *Revista General de Derecho Procesal*, **30**.
- Pereira i Puigvert, S. (2013): «Normas mínimas para las víctimas de delitos: análisis de la Directiva 2012/29/UE: especial referencia al derecho de información y apoyo», *Revista General de Derecho Europeo*, **30**.
- Ramos Méndez, F. (1995): «La tutela de la víctima en el proceso penal», *Justicia: Revista de Derecho Procesal*, **3-4**.
- Renart García, F. (2015): «Del olvido a la sacralización de la víctima en la fase de ejecución de la pena (análisis del art. 13 de la ley 4/2015, de 27 de abril, del Estatuto de la víctima del delito, a la luz de la LO 1/2015, de 30 de marzo, de modificación del Código Penal», *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, **17**.
- Tomé García, J.A. (2006): «El Estatuto de la víctima en el proceso penal según la Decisión Marco del Consejo de la UE de 15 de marzo de 2001 y su incorporación en el ordenamiento jurídico español», in T. Armenta Deu, F. Gascón Inchausti eta M. Cedeño Hernán (koor.), *El Derecho procesal penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*, Comares, Madril.

